

Villana Esporrrin



SANTI LEONÉ

Gogoan dut Maite Esporrrin PSNko zinegotziak *Diario de Navarra*-n idatzi zuen artikulua bat orduko alkate Yolanda Barcinaren politika kritikatzeko. Gogor salatu zuen alkatearen estiloa, eta ez zuen adjektiborik falta arerioa deskribatzeko -faxistatik goiti, edo hor nonbait-. Parterik hoberena, halere, hondarreko paragrafoan heldu zen: errandako guzia erranda ere, PSNk arduraz jokatu eta UPN babesten segitu bertze erremediorik ez zuela ondorioztatzen zuen gure Esporrrinek. Horixe izan da beti PSN Iruñean eta Nafarroan, erretorikan sutsu baina ekintzetan eskuinaren morroi.

Hori dela eta, Iruñean eta bertze hainbat tokitan alkatetza aldaketaren alderdiekin adostea izanzen zatekeen sorpresa; Navarra Sumari bidea erraztu izana, berriz, espero izatekoa zen. Ez da, beraz, traiziorik izan; erran nahi baita, bakar aldiz emandako hitza jan duenak enegarren aldiz hitza jateak traizioa izateari utzi eta tradizio bihurtu den heinean.

Azalpen sinesgarrikerik ezean, azkenaldian modan dagoen metodo bat baliatu zuen larunbatean PSNko zinegotziak: biktimarena egin. Bertzeak bertze, Casadok, Arrimadasek edo Riverak erabili dute metodo hori Euskal Herriko eta Kataluniako zenbait herritan egindako bisitetan. Iraindu nauzue, ergo arrazoi dut. Tira, sare sozialetan hedatu den bideoan ikusten da Esporrrinek, udaletxetik eskapo doala, kazetariak bertzerik ez duela inguruan eta, halere, haren bizkartzainak borra batekin mehatxu egin duela. Baina horiek txikikeriak dira. PSNkoaren tokian banintz, orain artikulua bat idatziko nuke -"Villana Esporrrin", adibidez- eta ironikoki nire burua, ez dakit bada, Yoko Onorekin konparatuko nuke -"gauza guzien errua dut"- . Ez, ez da serioa, baina estilo horrek bere publikoa badu. Bertzalde, PSNtik inork ez du deus espero. Ezta maila intelektualean ere. ●



ADUR

"ORAIN GU GATOAZ LAGUNTZA ESKE"

337.462 EURO 11/13 AUZIAREN GASTUEI AURRE EGITEKO

Presoen aldeko lana egiteagatik auzipetutako 47 lagunek epaiketak dakartzan gastuen aurreikuspena jakinarazi du. 337.462 euro orotara, 7.180 auzipetu bakoitzeko. Elkartasun ekonomikoa bideratzeko kontu korrontea zabaldu dute. "Madrilerako joateko eszedentziak, lizentziak edota opor egunak eskatu beharko ditugu, eta langabezian daudenen arazo handiak edukiko dituzte, hemendik eta epaiketa amaitu arte, soldatapeko lan bat aurkitzeko". Egingo duten gastua horrela banatu dute: arlo juridikoa 236.440 euro, garraioa 28.950 euro, estantzia: 72.072 euro. **2019/06/13**

